



2012/05/28ko prentsa-oharra


ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2012ko 1. hiruhilekoa

Oin berriko etxebizitzak eraikitzeak aurreikuspena % 38,1 jaitsi da 2012ko lehenengo hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekiko eta 2011ko lehenengo hiruhilekoarekiko % 63,5.

Etxebizitzaren birgaitzea, berriz, % 9,6 igo da azken hiruhilekoan, baina % 41,7 murriztu da azken urtean.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2012ko lehenengo hiruhilekoan aurreikusi da oin berriko 1.017 etxebizitza eraikitzea; aurreko hiruhilekoan baino 626 etxebizitza gutxiago, hau da, % 38,1 gutxiago. 2011ko lehenengo hiruhilekoarekiko 1.772 etxebizitza gutxiago dira, hots, % 63,5eko jaitsiera.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2012.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Bizkaiak, 447 etxebizitzarekin, Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusitako oin berriko etxebizitzaren % 44 hartzen du 2012ko lehenengo hiruhilekoan. Aurreko hiruhilekoan baino % 11,5 aurreikusitako etxebizitza



gehiago dira, baina % 59,2 gutxiago 2011ko lehenengo hiruhilekiko.

Araba du atzetik, aurreikusita dauden oin berriko etxebizitza guztien % 30,2rekin, 307 etxebizitzarekin. Lurralde horrek % 38ko jaitsiera izan du aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 70,9koa, iazko hiruhileko berarekiko.

Bestalde, Gipuzkoan oin berriko 263 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da, guztizkoaren % 25,9; aurreko hiruhilekoan baino % 64,8 gutxiago eta iazko hiruhileko berean baino % 58,7 gutxiago.

Arabako Lautadan egingo dira Araban aurreikusi diren oin berriko ia etxebizitza guztiak, % 99,3; Bilboko metropolian, Bizkaikoen % 66,2; eta Donostialdean, Gipuzkoakoen % 58,6.

Vitoria-Gasteizen oin berriko 304 etxebizitza eraikiko direla aurreikusi da, Euskal Autonomia Erkidego osokoen % 29,9 eta Arabakoen % 99, ondoren honako hauek daude: Barakaldo, 167 etxebizitzarekin —erkidegokoen % 16,4—, eta Oiartzun eta Ordizia, 90 etxebizitzarekin bakoitza —erkidegokoen % 8,9—. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, 33tan —ia 8tik batean— zegoen etxebizitza berriak eraikitzeko asmoa.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 137 birgaitzeak 2011ko laugarren hiruhilekoan aurreikusitako 235 birgaitzeak baino % 41,7 gutxiago izan dira, baina iazko hiruhileko berarekiko baino % 9,6 gehiago.

Euskadiko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua %22,7 jaitsi da 2012ko lehenengo hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta %24,4 2011ko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi da) 555ekoa izan zen 2012ko lehenengo hiruhilekoan; hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 22,7 gutxiago eta urtebete lehenago baino % 24,4 gutxiago.

Hamarretik ia zortzi —% 78,9— birgaitze-lizentziak dira; % 20,5 oin berriko eraikinetarako, eta gainerakoa, % 0,5, eraisketa-lanak egiteko soilik —guztira 3—.

Bizkaian, obra handiko 287 lizentzia eman dira; Araban, 176; eta Gipuzkoan, 92. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak horien guztien % 32,6 dira, eta Bizkaiaren eta Arabaren kasuan, aldiz, % 19,9 eta % 15,3, hurrenez hurren.

Arabak % 35,8 jaitsi dira obra handietarako lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta % 34,6 2011ko lehenengoarekin alderatuz gero. Gipuzkoan murrizketa % 29,8koa da aurreko hiruhilekoarekin erkatuta eta % 21,4koa iazko



hiruhileko berarekin erkakuta. Azkenik, Bizkaian % 8,3 gutxitu dira lizentziak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta iazko datuekin erkatuz gero, % 17,5.

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien % 79,5. Portzentaje hori Bilboko metropoliak Bizkaiarekiko duen ehunekotik hurbil dago, % 75,3; Donostialdean, ordea, Gipuzkoako lizentzia guztien % 41,3 baino ez da eman.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2012ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	555	100.0	-163	-22.7	-179	-24.4
	Oin berriko eraikinak	114	20.5	-42	-26.9	-78	-40.6
	Birgaitzeak	438	78.9	-118	-21.2	-90	-17.0
	Eraispenak	3	0.5	-3	-50.0	-11	-78.6
Araba	Guztira	176	100.0	-98	-35.8	-93	-34.6
	Oin berriko eraikinak	27	15.3	-20	-42.6	-37	-57.8
	Birgaitzeak	149	84.7	-77	-34.1	-49	-24.7
	Eraispenak	0	0.0	-1	-100.0	-7	-100.0
Bizkaia	Guztira	287	100.0	-26	-8.3	-61	-17.5
	Oin berriko eraikinak	57	19.9	6	11.8	-22	-27.8
	Birgaitzeak	230	80.1	-31	-11.9	-37	-13.9
	Eraispenak	0	0.0	-1	-100.0	-2	-100.0
Gipuzkoa	Guztira	92	100.0	-39	-29.8	-25	-21.4
	Oin berriko eraikinak	30	32.6	-28	-48.3	-19	-38.8
	Birgaitzeak	59	64.1	-10	-14.5	-4	-6.3
	Eraispenak	3	3.3	-1	-25.0	-2	-40.0
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	1,154	100.0	-724	-38.6	-1,760	-60.4
	Oin berriko eraikinak	1,017	88.1	-626	-38.1	-1,772	-63.5
	Birgaitzeak	137	11.9	-98	-41.7	12	9.6
	Guztira	332	100.0	-228	-40.7	-756	-69.5
Araba	Oin berriko eraikinak	307	92.5	-188	-38.0	-749	-70.9
	Birgaitzeak	25	7.5	-40	-61.5	-7	-21.9
	Guztira	513	100.0	-2	-0.4	-637	-55.4
	Oin berriko eraikinak	447	87.1	46	11.5	-649	-59.2
Bizkaia	Birgaitzeak	66	12.9	-48	-42.1	12	22.2
	Guztira	309	100.0	-494	-61.5	-367	-54.3
	Oin berriko eraikinak	263	85.1	-484	-64.8	-374	-58.7
	Birgaitzeak	46	14.9	-10	-17.9	7	17.9

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitza buruzko Estatistika



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.